

## Palos lurmuturra.

Palos lurmuturreko itsas-argia 1865. urtean piztu zuten lehenengo aldiz.

Hamar segundoro bi argi-izpi bidaltzen ditu bere ia ehun metroko dorretik, eskarmentu handiko kapitainek gidatutako ehunaka ontzi boteretsu hondorarazi zituzten hareazko banku eta hondo harkaiztsuen presentziaz ohartzeko.

Lehen, pirata berberen etorria salatzen zuen dorrea zegoen lurmutur honetan.

Eta oraindik lehenago, Baal-en omenezko tenplua.

Eta betidanik, bere jendea janari bila itsasoratzen zuen herria.

Egungo benetako aberastasuna "Palos lurmutur eta Hormigas uhartediko Itsas Erreserba" izendatzean datza. 1995. urtetik aurrera, 19 kilometroko esparrua babestuta dago, alde batetik bertako ekosistemak kontserbatzeko, eta bestalde, merkatal balioa duten animalia ugalkorren erreserba bermatzeko.

Ingurua babestea onuragarria da barrakudarentzat ere, ehizakiak aurkitzea erraztuko dio-eta.

Forma biologiko ezberdinak dira bioaniztasunaren adierazle, euren laminak korronteetara zabaltzen dituzten alga arreak, esaterako.

*Posidonia* fanerogamoa ekosistemaren osasunaren seinaleztat har daiteke. Hemen, epifitoezko estalitako hostorriak dituzten *Posidonia* bedaxka trinkoak ugari dira.

Zeriantoen garro erremingarriek harrapariak izutzen dituzte, eta ehizakiak harrapatu.

Bentosa eskuzabala da. Maskor biko egitura hauek aszidia hauskor eta poliketo herabeekin elkarbanatzen dute bizitokia; guztiak elikadura-kate hauskorren parte.

Ekosistemaren parte bihurtu den krosko baten burdinazko hondarren artean bizi dira guztiak, biotopo erakargarri batean.

Behinola itsasontzi baten egiturari zegozkion burdinak, ekaitz batek edo Palos-eko hondo traidoreek hondorarazi eta ontziaren bidaiari bukaera eman arte.

Mediterraneo itsasoko inguru honetako hondoak kapitain arretagabe bat baino gehiagoren helmuga izan ziren.

Baina gai arrotza izan zitekeena, itsasoan berehala arraintzat babestoki eta organismo sesilen oinarri bihurtzen da.

Kroskoaren inguruan, bizitza antolatu egiten da, espazioa eta baliabideak elkarbanatuz.

Eta kroskoari lotu ezin diren organismoak, ondoko hondoetara atxikirik bizi dira: Algak, koralak eta gorgoniak, esaterako.

Iluntzean, itsas-argiak zelatatzen du itsasoa berriz ere, eta marinelak zaindu. Batzuetan, ilargiak laguntzen dio.

Orduan, hondoetako jarduera aldatu egiten da.

Itsas sugea gauez joaten da ehizatzerara. Bere kobazuloa defendatzen du kosta ahala kosta.

Generokideren bat atzemanaz gero, ez dute zalantzarik euren mehatxuak etorkinari helarazteko.

Baina elikagai interesgarriren bat sumatzean, hozkadak norabidez aldatzen dituzte.

Baina dena ez da jangarria; gauza gutxik nahasten dute harraparia *Knidario* baten harizpi erremingarriek beste. Bakoitzak ahalik eta ondoen defendatzen du bere burua.